


txinpart

Hurtzaro ikastolako aldizkaria

2007 ekaina • 38. zenbakia



www.haurtzaroikastola.net



AURKIBIDEA

HAURTZARO INFORMATZEN	3
HATZAK BETE LAN	13
EUSKARAREN TXOKOA	24
GURASOOK JAKIN DEZAGUN	26
GU ERE KAZETARI	31
NAHASTE BORRASTE	34



“ESKU PILLA BUGANVILLA”

Esku pilla Bugarvilla izan da LORIARTZUN 2007 Oiarztungo Udalak antolatutako Lore eta Landareen 3. azokan erakusgai jarri nahi izan duen kale instalazioa. Baina eguraldiak ez zuenez lagundu, guretzat presatutako panela hutsik egon da aurten Loriartzun jaian.

Aurtengoan ere gure eguneroko jardunaren zati bat eskaini diogu ikastolan naturarekin bat egiten duen herriko proiektu honi, eta komunitate guztiaren partaidetza ilusioz adierazi nahi izan dugu: ikasleek beren esku eta irudimen artistikoarekin; irakasleek ideia landuz, ikasleak motibatuz eta ingurumen instalakuntza erraldoi hau aurrera ateratzen lagunduz.

Baina Loriartzunen ezin izan bada ere, Ikastola egunean izan dugu ikusgai instalazio hau. Egun honetan



gerturatutakoan Haurtzaro Ikastolako ikasle guztien eskuak ikusi ahal izan ditugu bertan: esku ttikiak, ertainak, handixeagoak, elkartuak, apainduak, lore bihurtuak... eta guztiak elkartuak, enbor sendo bati lotuak, proiektu bakar batean bat egiten dutenak: HAURTZARO IKASTOLA

Instalazioa jarri ez bazen ere, guraso eta langileek, nola ez, beren asteburuko denbora preziatuaren zati bat erabiliz, bide gorrian jarritako ikastolako taberna antolatu dugu. Larunbatean ez bezala, igandean esfortzu honek bere etekina eman zuela esan behar.

Aurreko urteko HAURTZAROKO LORATEGIA Oiarztundik kanpo ezaguna egin zen, instalazio dotorea izan baitzen; aurtengoan ere, Loriartzundik kanpo izan bada ere, ez zaigu hankamotz gelditu.

Antzerki erakusketa

Antzerki erakusketa dela eta bi hitz. Udalak antolatu duen erakusketa eta emanaldietan parte hartu dugu Haurtzaro Ikastolako DBH 3. eta 4. mailako ikasle- irakasleok. Ikastolako lana osatzeko oso lagungarri gertatu dira eta ikasleen motibaziorako pizgarri bikaina. Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiogu Udalari horrelako erakusketa bat antolatzea-gatik, eta baita Eugenio Arozenari ere bideratu duen moduan egiteagatik. Gure ustetan bete-betean asmatu du. Eskerrik asko gure lana osatzen laguntzeagatik.





3. hiruhilabeteko irteerak

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
HAUR HEZKUNTZA			
1	APIRILAK 24	AÑARRE ZARRERA	BASERRIKO ANIMALIAK IKUSTEA
1	MAIATZAK 9	BIDEGORRIRA ETA TXARARA	UDABERRIAZ GOZATZEA
1	MAIATZAK 11	OIARTZUNGO PLAZARA	AGENDA 21EKO ERAKUSKETA IKUSTEA ETA KALEA BEHATZEA
1	EKAINAK 1	HONDARRABIRA	LEHENENGO ALDIZ EGUN PASA EGITEA ETA ELKARREKIN DISFRUTATZEA
1	MAIATZAK 29	BIDEGORRIRA	ELKARREKIN PASEATZEA
1	EKAINAK 7	URKABE ALDEKO ETXE BATETARA	USOAK ETA HEGAZTIAK IKUSTEA
2	APIRILAK 18	ALCAMPORA	HIPERMERKATUA BEHATZEA
2	APIRILAK 25	ELIZALDEN ZEHAR	DENDA EZBERDINAK BEHATZEA
2	MAIATZAK 5	TXARARA	LOREAK BILDU, ESKULAN BAT EGITEKO
2	MAIATZAK 8	OIARTZUNGO PLAZARA	AGENDA 21EKO ERAKUSKETA IKUSTEA
2	MAIATZAK 18	UDALETXEKO PLENO ARETOA	IBARGAINGO EMANALDIA ENTZUTEA
2	EKAINAK 5	OKINDEGIRA	OGIAREN PROZESOA EZAGUTZEA
2	EKAINAK 6	HONDARRABIRA	NESTOR BASTERRETXEAREN ARTELANAZ GOZATZEA ETA EGUN PASA
3	APIRILAK 20	URKABERA	INGURUNEA ZAINTEZA
3	MAIATZAK 8	IKASTOLAN	USURBILKOEKIN ELKARKIDETZA: MUSIKA EMANALDIA
3	MAIATZAK 10	AGENDA 21EKO ERAKUSKETARA	INGURUNEA ZAINTEZA
3	MAIATZAK 9	TREN BERDEA ETA MUSIKA MUSEORA	OIARTZUN EZAGUTZEA (ERGOIEN AUZOA)
3	MAIATZAK 18	UDALETXEKO PLENO ARETORA	IBARGAIN MUSIKA ESKOLAREN EKITALDIAZ GOZATZEA
3	EKAINAK 1	DONOSTIARA	ERAIKUNTZA DESBERDINAK IKUSTEA
3	EKAINAK 13-14	ZARAUZKEKO ATERPETXERA	AUTONOMIA ETA ELKARBIZITZA LANDU
LEHEN HEZKUNTZA			
1	MAIATZAK 29	PLAIAUNDIRA	GAIAREN LANKETA
1	EKAINAK 18-19-20	LESAKARA	GURE ARTEKO HARREMANAK SENDOTZEA
2	MAIATZAK 23	OIARTZUNDIK ZEHAR	OIARTZUNGO INGURUNEAREN EZAGUPENA
2	MAIATZAK 30-31	TREN BERDEA	OIARTZUNGO INGURUNEAREN EZAGUPENA
2	EKAINAK 18-19-20	SASTARRAINERA	GURE ARTEKO HARREMANAK SENDOTZEA
3-4	APIRILAK 25	SAN MARKOSA	EGUN PASA ELKARREKIN ETA OHITURA ZAHARRAK MANTENTZEA
3-4	APIRILAK 26-27	JANTOKIKO ARETORA	IRAKURZALETASUNA LANTZEKO ERAKUSKETA IKUSTEA
3-4	MAIATZAK 2	JANTOKIKO ARETORA	IDAZLEARI ELKARRIZKETA
3	MAIATZAK 7	KIROLDEGIRA	BIDE HEZIKETA: SAIO PRAKTIKOAK
4	MAIATZAK 9	KIROLDEGIRA	BIDE HEZIKETA SAIO PRAKTIKOAK
3-4	MAIATZAK 11	LIBURUTEGIRA	AGENDA 21: ERAKUSKETA IKUSTEA



3	MAIATZAK 17	PLENO ARETORA	IBARGAINO MUSIKA ESKOLAREN KONTZERTUA ENTZUTEA
3	MAI. 28 - EKAIN. 4	ZAHARREN EGOITZARA	ADINEKO ETA HAURREN ARTEKO HARREMANA LANDTZEA
3	MAIATZAK 29	JANTOKIKO ARETORA	DBHKOEN ANTZERKI EMANALDIA IKUSTEA
3-4	EKAINAK 1	BIDE GORRIRA	ZIKLOAREN DESPEDIDA ELKARREKIN
3	EKAINAK 6	LEHENENGO MAILARA	KIDETZA, EUSKARAZ BIZI LANDUTAKOAREN AGERPENA
4	EKAINAK 4-5-6	BARATZERA	HARREMANTZEA
3	EKAINAK 11-12-13	BERTIZA	HARREMANTZEA
4	EKAINAK 18	JANTOKIKO ARETORA	DBHKOEN ANTZERKI EMANALDIA IKUSTEA
5	EKAINAK 13-14-15	GASTEIZA	INGURUNEA (EUSKAL HERRIA) ETA GURE ARTEKO HARREMANAK
6	MAIATZAK 4	ANDOAINERA	ESKOLARTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA
6	MAIATZAK 12	OÑATIRA	BOTE LUZEA: AZKEN JAIALDIRA
6	EKAINAK 1	LEABURUKO MAHALA BASERRIRA ETA GAZTELURA	INGURUNEA (LAN SEKTOREAK) GURE ARTEKO HARREMANAK
6	EKAINAK 13-14-15	AROTZ-ENEARA (ETXARRI-LARRAUL)	INGURUNEA (EKOSISTEMAK) ETA GURE ARTEKO HARREMANAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA			
1	MAIATZAK 3	ERRENTERIARA: ANDONI KORTA ANTZERKI TOPAKETA	ANTZERKI SAIOA ESKAINTZEA ANTZERKIAREKIN GOZATZEA
1-2	MAIATZAK 4	ANDOAIN: GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA	BERTSOLARITZAN IKASITAKOA PRAKTIKATZEA
1-2	MAIATZAK 17	XXV. LEXOTI JAIALDIA	BERTSOLARI MODUAN ARITZEA BERTSOZ GOZATZEA
1	EKAINAK 11-12-13	BARRIARA	INGURUNEA ETA GURE ARTEKO HARREMANAK
2	APIRILAK 26	FRANTSESEKO IKASLEAK: HENDAIRA	FRANTSESA PRAKTIKATZEA
2	APIRILAK 26	ERREFORTZUKO IKASLEAK: LUBERRIRA-ARDITURRIKO MEHATEGIETARA	GEOLOGIA-MEHAGINTZA EZAGUTZEA
2	APIRILAK 26	ZIENTZI TAILERREKO IKASLEAK: OIARTZUNGO IBAIAREN AZTERKETA	OIARTZUN IBAIA AZTERTZEA
2	EKAINAK 11-12-13	BEIRERA	INGURUNEA ETA GURE ARTEKO HARREMANAK
3	MARTXOAK 26	ZUGARRAMURDI-BERA (PIO BAROJAREN ETXEA)	BREITAINIATIK ETORRITAKO IKASLEEKIN HARREMANTZEA EUSKAL HERRIKO HAINBAT TXOKO EZAGUTZEA
3	MAIATZAK 28	ZENTSURAREN GURPILEAN: EUSKARAZKO ANTZERKIA: EMANALDIA ETA ERAKUSKETA	GARAI BATEKO ANTZERKIAZ JABETZEA PASTORALAK EZAGUTZEA
3	EKAINAK 11-12-13	GORLIZERA	INGURUNEA ETA GURE ARTEKO HARREMANAK
4	APIRILAK 19	GUGGENHEIM MUSEOA ETA BIZKAIA ZUBIA	ARTEAZ GOZATZEA ERAIKINAK EZAGUTZEA
4	APIRILAK 26	GOTZON GARATE IDAZLEAREN BISITA	IDAZLE BATI ELKARRIZKETA EGITEA
4B	MAIATZAK 18	GIPUZKOAKO HERRI KIROL TOPAKETAK BILLABONAN	EUSKAL HERRIKO KIROLAK PRAKTIKATZEA
4	EKAINAK 5	ZENTSURAREN GURPILEAN: EUSKARAZKO ANTZERKIA: EMANALDIA ETA ERAKUSKETA	GARAI BATEKO ANTZERKIAZ JABETZEA, EZAGUTZEA BAKARRIZKETEKIN GOZATZEA
4	EKAINAK 11-15	COMA-RUGARA	DISFRUTATZEA



Eskolaz kanpoko ekintzak 2007/08

Kaixo! Nerea naiz eta 4 urte ditut. Nire gelako 5 lagunekin batera, jangelatik atera eta **JOLAS TXOKORA** joaten naiz. Oso ondo pasatzen dugu; Igonek, ipuinak kontatzen dizkigu, marrazkiak egiten ditugu, antzerkia, eskulanak... Datorren ikasturtean ere izena emango dut, epea hasten den lehen egunean, ez dut azkena arte itxoingo, ze bestela lekuri gabe geratuko naiz, jende pila bat apuntatzen delako. Aurten, 58 gaude 5 taldetan banatuta.

Nire lehengusuak Ibai izena du eta 8 urte ditu. Oso marrazkilari ona da eta **MARRAZKETAKO** saioak izugarri gustatzen zaizkiola esaten dit. Berarekin batera, beste 28 ikasle daude, 3 taldetan banatuta. Gauza berriak erakusten dizkio Josuk. Egindako azken marrazkia oparitu egin zidan, hor daukat logelako paretan eskegita.

Aitor Ibaireren laguna da eta Aitorrek **ESKULANAK** ditu gogoko. Oso abila da eskuekin lanean eta gainera ideia berri pila bat izaten ditu. Aitorrekin batera, Maialen, Naiara, Xuban, Lide eta Josu joaten dira Idoiaren azalpenak entzun eta praktikan jartzera. Gauza zoragarriak egiten dituzte. Iazko ikastolaren egunean erakusketa jarri zuten gelako guztiek urte hartan egindako eskulan guztiekin eta gurasoei izugarri gustatu zitzaizen. Aurtengo taldea iazkoa baino handiagoa da, 25 ikaslek parte hartu dute.

Uxue, Maitane, Iker eta Gorka, beste lagun batzuekin batera, **MALABARETAKO** saioetara joaten dira beste 8 lagunekin batera. Gelan guztira 12 lagun dira, baina 3 egunetan banatuta daude eta bakoitzak

bi egunetan hartzen du parte. Eguraldi ona eginez gero, kalera atera eta Maiderrek erakusten die malabareekin jolasten; lehenik pilota batekin, gero birekin eta gero hirurekin. ZE NOLAKO ABILIDADEA! Beste batzuetan, koloretako globoekin irudiak egiten ikasten dute; txapelak, loreak...

Aupa! Gu, Garazi, Izar, June, Olaia, Naiara, Maialen eta Udane gara. Ixiarrek **DANTZA GARAIKIDEA** erakusten digu. Musika modernoa ekartzen du eta taldeka dantza berriak asmatzen ditugu. Aurten, Korrika zetorrela-eta, herriko plazan dantza egin dugu, txikitatik hasi eta handienetaraino. Guztira, 73 neska aritzen dira 6 taldetan banatuta, 6 urtetatik hasi eta 16 urte arte. Hala ere, ez dakigu zergatik, baina beti neskak bakarrik ematen dugu izena eta denontzat dago irekita; bai neska eta baita mutilentzat ere. ANIMATU!

Gu, Iñigo, Unai, Xuban, Beñat eta Aitor gara. Guri dantza garaikidea baino gehiago **EUSKAL DANTZAK** gustatzen zaizkigu. Orain arte ia gehienak neskak ziren, baina gero eta mutil gehiago apuntatzen gara.

Guk, Aritz eta Eñautekin ikasten dugu: Agurra, makil dantza, ezpata dantza... Gure gelako neskak ere euskal dantzan apuntatuta daude; batzuk Olatzekin aritzen dira, beste batzuk Marixabelekin eta beste batzuk Alaitzekin, saltoa, bueltak, zortzikoak, muxikoak eta erromerietarako dantzak ikasten. Tarteka irteerak egiten ditugu taldean; dantzari txiki egunak, San Joanak, Xanistebanak... Bakarka dantzan aritzeko aukera, Aritz eta Lorenarekin izaten da. Hauekin



txapelketan parte hartzeko aukera izaten da, baina beti ere dantza batzuk aurretik ikasita izatea beharrezkoa da, bestela zail xamarra da. Kurtso amaierarako ikuskizun erraldoia prestatzen ari gara. Bertan euskal dantzako partaide guztiok hartuko dugu parte, guztira 125 dantzari inguru. Egunak daramatzagu entseguetan, gogo eta ilusio handiarekin!

Aurten lehenengo aldiz eta probatzeko Markel eta Irati **BERTSOLARITZARA** animatu dira. Bata Anderrakin aritzen da eta bestea Arkaitzekin. Beldur pixarra bazuten, errimekin eta doinuekin asmatuko ote zuten, baina pixkanaka ikasten ari dira; beste 14 ikaskiderekin batera primeran moldatzen dira. Laster hortxe ikusiko ditugu herriko plazan bertso kantari!

Julen, Udane eta Olatz musikariak dira; Julenek **TRIKITIXA** ikasten du Xabirekin; Udaneri Iraiak erakusten dio **PANDEROA** astintzen eta Olatzek putz eginez **TXISTUARI** doinuak ateratzen dizkio Arantxak lagunduta. Gela barruan ikasten dute, baina aukera duten bakoitzean, jaietan, erromerietan, dantzarietara eta kaleetan barrena beren musika tresnei soinua ateratzera joaten dira.

Amaia eta Jokin anaia-arrebak dira eta kurtso hasieran eskolaz kanpoko ekintzen txostena jaso zutenean, argi zeukaten **KIROLA** egin nahi zutela, baina zer egin? Aukera zabala zen: ESKU PILOTA, aurten gaine-



ra Gipuzkoako txapeldun izan dira ikastolako ikaskide batzuk, IGERIKETA, uretan ariketa fisikoa egiteko, SANBO, JUDO eta KENPO KAY, minik hartu gabe, defentsarako teknikak ikasteko, ATLETISMOA, korri egiten ikastea modalitate ezberdinetan, SOINKETA ERRITMIKOA, musikarekin lagunduta gorputzaren arintasuna lantzeko eta MULTIKIROLEKO saioak ere aukeren artean zeuden. Azken hau zela eta, Jokinek arrebari esaten zion:

“–Nik iaz egin nuen alebinen taldean eta oso ondo pasatzen da, Amaia. Saskibaloia, futbola eta eskubaloia egiten ditugu normalean eta tarteka beste saio batzuk ere prestatzen dizkigute, igeriketa, pilota...”

–Ba, agian nik aurten probatuko dut, ze gainera iaz ez nuen izena eman benjaminetarako eta aurten alebinetan sartuko nintzateke.”

Amaiak erabaki zuen aurten multikirola egingo zuela, eta bera bezalaxe beste gelakide batzuk animatuta, aurten lehen aldiz, nesken taldea sortu dute. Jokinek multikirolean iaz egin zuen azken urtea alebinetan eta aurten atletismoan izena ematea erabaki du. Aukera bikaina hori ere!

07/08 ikasturtean ere eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza zabala izan da. 4 urtetik hasi eta 16 urte bitarteko ikasleentzat egokitutako ekintza asko egin dituzte.

► Aurten **ANDONI KORTA ESKOLARTEKO ANTZERKI TOPAKETA** XI. ediziora heldu da. Bertan izan ziren ikastolako DBH 1. mailako Antzerki Tailerrekoak. “DIRUAK SENDATU DU” obra aurkeztu zuten Errenteriako Niessen aretoan.





IKASTOLA EGUNA 2007


Ikasturte bukaeran, ekainaren 17an, IKASTOLA EGUNA 2007 ospatu dugu. Ohiko moduan, berriz ere ikastola osatzen dugun partaide gehienak elkar-tu gara egun honetan: ikasle, guraso, langile eta hainbat herritar ikastola zale. Eta elkarrekin egun alai eta lagun girokoa pasatzeko aukera paregabea izan dugu.

Ikastola egun honen bezperan, aurrerantzean bi urtetik behin egiteko asmoa duten Haurtzaro Dantza Taldeko ikasturte bukaerako dantza emanaldiaz gozatu ahal izan dugu. Egun hau aproposa izan da Maite Gezalari dantza taldean hainbeste urtean egindako lanarengatik hain merezia duen omenaldi xumea eskaintzeko.

Eta egunean bertan, goiz partean, eskolaz kanpoko ekintzen emanaldia izan dugu ikusgai, ikasturtean hainbat tailerretan egindako lanen erakusketa, ikasturtean zehar DBHko ikasleek sortutako DVDn emanaldia, hauen artean sarituak batzuk, eta nola ez, Ekitaldi Ofiziala. Tarte honetan DBH 4. maila bukatu duten ikasleak agurtu dira. Bestalde, ikastolarekin izandako harremanarengatik hiru omendu izan ditugu: Rosa Txapartegi eta Iñaki Garmendia, urte askotan mendi taldean egindako lana eskertuz, eta Izaskun Madariaga, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoko ikasketa-burua, ikasturte hau bukatzean jubilatzen dena. Burutu duzuen lanarengatik, mila esker hemendik ere hirurei.

Ondoren bazkaria, haur eta helduentzat, eta eguna bukatzeko hainbat ekitaldi: tailerrak, trikitilariak, puzgarriak, pailazoak, antzinako jolasak... Primerako eguna. Mila esker parte hartzaile guztiei.





AURTENGO IKASTURTEKO SARITUAK

Hau irakurtzen hasi eta lehenengo galdera izan daiteke **ZEIN ALORRETAN?** Hainbeste alor eta hainbeste sari-tu izan ditugu ikasturte honetan zehatz mehatz adierazteko ale oso bat ere beharko genukela. Horregatik **ZORIONAK** denei eta **MILA ESKER** egin duzuen ahaleginagatik.

► LITERATURA

Ainhua Iragorri, Ane Dehesa, Mikel Aranburu, Mikel Zapirain, Odei Mujika, Garazi Urdanpilleta, Oihane Isasa, Udane Loidi, Oihane Uitz, Haritz Azkarate, Irene Barrenetxea, Iker Garmendia, Aizpea Makuso, June Retegi, Olaia Azpiroz, Edurne Moreno, Eneko Huitzi eta Izar Azpiroz.

► KIROLA

Imanol Ugalde, Iker Mujika, Imanol Elizondo, Xabier Ondaro, Zigor Salaberria, Julen Egiguren, Ekhi Mitxelena, Aitor Mitxelena, Eneko Iparragirre, Unai Lopez, Iñigo Gainza, Maialen Ibargoinen, Irati Huitzi, Urtz Sarra, Peio Kazabon, Gaizka Ezponda, Eneko Orkaizagirre, Andoni Ugalde, Mikel Zapirain, Ugaitz Susperregi, Ander Gaztelumendi, Irati Cabornero, Miren Idarreta, Olatz Retegi, Uxue Urkia, Gexan Esteban, Udane Arbelaiz, Alain Isasa, Iñigo Ugalde, Olaia Azpiroz, Ainhua Orkaizagirre eta Izar Makuso.

► MUSIKA

Amaia Perez, Nahia Aguado, Izaro Toledo, Estitxu Cruz eta Julen Rodriguez.

► DANTZA

Ane Cruz, Aritz Olarte, Itsaso Uitz, Eneko Iparragirre, Udane Eskudero, Izar Aizpuru, Jon Iragorri eta Odei Mujika.

► BIDEOGINTZA

Amaia Arriaran, Olaia Barrenetxea, Elena Carcedo, Maialen Etxeberria, Garazi Aramendi eta Olaia Azpiroz.

► SMS LEHIAKETA

Olaia Barrenetxea, Elena Carcedo, Olaia Azpiroz eta June Retegi.

► MARRAZKIGINTZA

Mikel Gonzalez eta Lur Mitxelena.

► ARGAZKIGINTZA

Aitor Bereziartua.



À PARIS

À Paris

Quand un amour fleurit, ça fait pendant des semaines

Des cœurs qui se sourient, tout ça parce qu'ils s'aiment

À Paris

Au printemps...

F. Lamarque

Apirilaren 18a. Gaueko 10ak dira eta Hendaiaiko Ageltokian elkartu gara Oartzoko 1. Batxilerreko frantseseko 22 ikasleak eta bi irakasle. Parisera goaz. Udaberria da eta "maitasunaren hiriruntz" abiatzekotan gaude...

Gaua, "couchettetan", ez da hain erromantikoa baina nekatuta gaudenez lo egin dugu (irakaslen batek zurrunka eta guzti) eta konturatzerako Gare d'Austerlitz-en gara. Oraindik ez dugu ezer ikusi baina Paris-eko atmosfera berezia nabaritzen hasi gara. Gosalduta eta bagoaz.

Apirilaren 19a. Kalean eguraldi zoragarria dugu. Oh! Le printemps!. Ez dugu txamarrarik behar: eguzkia eta beroa. Gure herrialdeko lainopetik atera eta eguzkia ikustea benetan eskertzen da. Datorren igandean hauteskundeak direla ikusten da paretetan: Sarkozy, Royale, Le Pen...

Hotela Montparnasse auzoan dugu eta harantz joan beharko dugu gauzak uztera. Txukuna dirudi (hotelak, noski) eta ingurune interesgarria du: antzokiak, jate-txeak, tabernak... Iluntzean ikertuko ditugu; orain trasteak utzi eta hiria ezagutzera goaz.

Operan bus turistikoa hartu eta gure "tourra" hasi dugu. 1. geldialdea: Louvre.

Ikusgarria!. Hainbestetan telebistan eta pelikuletan ikusitako piramideak gure aurrean dugu. Eta lehenengo arazoak ere bai. Gioconda ikustera sartuko garela eta, ilaran jarri gara. Seguritateko goardia bat datorkigu berehala: ikasle talde bat garenez, talde-entzat dagoen sarrera berezi batetik sartu behar omen dugu.

Goazen bestalderara!. Beste atean: ba al duzue erre-serbarik?. Ez, guk ez dugu bisita gidatu bat nahi eta, sartu-atera bat egin nahi dugu Gioconda ikusteko. Mais... C'est pas possible ça!. Pas possible?. Azkenik, eta atezain guztiekin eztabaidak izan ondoren sartzea lortu dugu. Gure helburuetako bat frantsesa lantzea zen ezta?. Ba, hori egiten ari gara!.

Gioconda eta Samotraziako "Victoire" ikusi eta Tuilleries-eko jardinetan eserita hamaiketako egin ondoren, buseko birarekin jarraitzen dugu: Notre Dame-ko geldialdea mundua non hasten den ikusteko, Musée d'Orsay, inpresionisten lanak ikusteko, Champs Élysées... Tour Eiffelera.

Oinez igotzeko gogoak zuten ikasle batzuk, beren gogoak bete gabe gelditu behar izan duten arren, ilusio handiz iritsi gara puntaraino. Paris guztia gure oinetan... Ikusgarria!



Arratsalde erdia iadanik eta nekatzen hasiak gara (goizeko 7tan hasita bueltaka gabiltza). Quartier Latin-eruntz jarraitzen dugu. Batzuk erdi lo daude autobusean.

Sorbonne-ko ataria ikusi eta St. Sulpice elizara goaz. "Codigo da Vinci" pelikula non filmatu zen ikusi nahi dute batzuk eta ez gara irriki horrekin geldituko...

Berezia eliza! Baditu, bai, kutsu esoterikoa eta atmosfera misterioitsua...

Orain bai!. Duxatu eta pixkat deskantsatzeko asmoz, hotelera goaz. Gelak banatu, garbitu, txukundu eta apain-apain jarri ondoren, afaltzera goaz. Itzultzeko zita 12tan dugunez, tartetxo bat badugu Montparnasse deskubritzeko.

Txintxo-txintxo, 12tan denok hotelean gara denbora horretan izan ditugun "abenturatxoak" kontatuz: zein mutil goapoak dauden kalean, zein garestiak diren turkiarren "kebabak", zein jende berezi dabilen inguru honetan... Gau ederra egiten du eta pozik gaude. Gustura gabiltza eta bihar beste egun luze bat izango dugunez, ohera goaz.

Apirilaren 20a. 8tan denok gosalduta eta prest gaude. Denok?. Ez!. Hirukote bat falta zaigu. Non

dira?. LO!! Zitzu batean esnatu, prestatu, gosaltu eta busera!

Gaur Montmartre tokatzen zaigu: Sacré Coeur eliza eta inguruneak. Berriro ere eguraldi zoragarria dugu Montmartreko margolari eta artisten artean ibiltzeko ezin hobea. Goiza bertan eman ondoren, eta autobusez beste ibilalditxo bat eginaz Centre Pompidou eta Les Halles aldera goaz. Arratsaldea libre dugu erosketak, paseotxoak egiteko. Sekulako giroa dago Les Halles-eko inguru horretan. Jendetza izugarria, modu guztietako gazteak, mundu guztiko jendea.

Etxe aldera bueltatu behar dugula pentsatzen hasi gara eta trixtura pixkat ere ematen digu. Afaldu, hoteleko gauzak hartu eta Montparnasseko geltokiruntz abiatzen gara, TGV-a hartzeko.

Itzulera bidaia gogorra izan da. Nekatuak iritsi gara trenera eta eserita bidaia egin behar izan dugu. Luze egin zaigu baino goizeko 6tan Hendaian gaude eta etxera joan eta goxo goxo lo egiteko aukera izango dugu.

Laburra eta neketsu xamarra izan da bidaia bainan... merezi izan du. Bueltatzeko gogoz gelditu gara. Il y a toujours Paris. Á bientôt !



XXV. LEXOTI SARIA

Ikasturte amaierako urteroko ekitaldi pilaketan, leku handi samarra hartzen du bertsoak Haurtzaro ikastolan. Maiatzaren 17an ospatu zuten ikastolan 25. Lexoti saria, jantoki berriko gela nagusi berrian. 25 aldiz ospatu dute urtez urte behin ere huts egin gabe Haurtzaron Lexotiren izena daraman bertso jaialdia. Oraindik gogoan omen dituzte hasiera hartan zein izan ziren irabazleak. (Aitor Arbelaitzek, Ixar Elizondok, Juan Mari Lopezek...).

Sari banaketa Joxe Luix Lekuona Lexotik berak egiten zuen hasierako edizio haietan. Sariak banatu bakarrik ez, dozena erdiren bat bertso kantatu ere bai. Jaial-



diak bi zati izan zituen aurtengoan ere. Lehenengoan bat-batean aritu ziren Haurtzaro Bertso Eskolakoak Ander Lizarralderen aginduetara. Bigarren zatian, Lexoti Sariko bertso paper irabazleak entzuteko aukera izan zuten ikastolan elkartutako 200 ikasleek.

Aurrera doa, beraz, ikastolako Bertso Eskola. Eta ez bakarrik Bertso Eskola, batez ere, ordu lektibotako, eskolordutako bertso lanketa da aurrera doana azken 25 urteotan. Eta ikastolako bertsolaritzako ardura-dunak dioen bezala, EUSKARA EUSKALDUNON LOKARRI eta BERTSOA EUSKARAREN EUSKARRI.



Haurtzaro Mendi Taldeak aurrera darrai ibilaldiekin

Haurtzaro Mendi taldeko partaideok 2006/07 ikasturtean antolatu ditugu makina bat ibilaldi Haurtzaroko guraso eta ikasleen gozamenerako. Ikus itazue, besterik ez bada, irteeretako argazki batzuk. Hala ere, argazki mordoak daukazue ikastolako web orrian: **www.haurtzaroikastola.net**





3 URTEKO NESKA-MUTIKOAK GARRAIO LANTZEN ARITU GARA. HONETAN ARI GINELA, UNAXEK ADIERAZI ZIGUN BERE AITATXOK ETXEAN BAZITUELA BAI KOTXE ETA BAI HEGAZKIN TXIKIAK, BENETAN HEGAN IBILTZEN DIREN HORIETAKOAK.

GU, NOSKI, AUKERA EDER HAU APROBETXATUZ, BERE AITATXO ASIERREKIN HARREMANETAN JARRI GINEN. ETA BEREHALA ESKAINI ZUEN BERE BURUA GUREGANA ETORTZEKO.

HAU DELA ETA, ASTELEHENEAN BERE BISITA IZAN GENUEN. BAINA EZ ZEN ESKU HUTSIK ETORRI!

HAUR HEZKUNTZAKO HAUR GUZTIAK BILDUTA GEUNDELA, HOR AZALDU ZITZAIGUN HEGAZKIN, HELIKOPTERO ETA KOTXEZ KARGATURIK...

A ZE NOLAKO IKUSKIZUNA ANTOLATU ZIGUN HAUEK GUZTIAK MARTXAN JARRI ZITUENEAN!. KOTXE TXIKIAK, A ZE BURRUNBA ETA KEAK ATERATZEN ZITUEN, ETA A ZE NOLAKO MARTXA ZERAMAN, ZITU BIZIAN IBILIAZ HARA ETA HONA, JIRABIRAKA ETA DERRAPEAK ERE EGINEZ...

ETA HEGAZKINAK..., HANTXE IBILI ZIREN GURE GAINETIK BARRENA HEGAKA. KONTUZZZ!! NOIZEAN BEHIN ERE BURUA MAKURTU BEHAR IZAN GENUEN, HAIZE KOLPEAK ZIRELA ETA .

DATORREN IKASTURTEAN SAN MARKOSERA JOATEKO GONBIDATU GAITU, BERTAN HEGAZKIN HANDIENAK HEGAN IKUS AHAL IZATEKO ETA, JAKINA, GUK AHO BATEZ BAIETZ ESAN DIOGU.

ESKERRIK ASKO, ASIER.

HAUR HEZKUNTZA 1 (3 URTEKOAK)





HAUR HEZKUNTZA 2 (4 URTEKOAK)

UDABERRIA IRITSI ZAIGU!!

eta poz-pezik hau egin dugu

BEGIRA ZEIN KOADRO
EDERRAK EGIN DITUGUN



1. MD/GO TXARRA LORR BÍDU
(HENDIBILGO TXARAN LOREAK BILDU)



EUKAIA/LORR/ARI
(EGUN KARIAK LEHORTZEN JARRI)



SOAEMETAITATI
(KOZA EKAN ETA ITXATI)



1



2



3

SAN MARKOS BETETA DAGOELA ENTZUN DUGU ETA GAINEZKA EGIN EZ DEZAN, **MATERIAL BIRZIKLATUAZ** BALIATU GARA TXIMELETA POLIT HAUEK EGITEKO, ETA ORAIN NIRE GELAK UDABERRI KUTSUA DAUKA.

► **HAUR HEZKUNTZA 3 (5 URTEKOAK)**



4



Hiruhilabete honetan ekintza zoragarriak burutu ditugu: Alde batetik, **irakurzaletasuna bultzatzeko** antolatutakoak: Lehenengo, irakurketa txokoa bisi-tatu eta bertako liburuekin gozatu genuen eta ondo-ren, Anttonek bere liburuetako igarkizun eta olerkie-kin une polit bat eskaini zigun.

Beste aldetik, **“Natura zain dezagun”** gaia landu dugunez, Plaiaundi parkean dauden bizidunak eta bizigabeak behatu ditugu. Bertan ere, oso ondo pasa genuen.

► LEHEN HEZKUNTZA 1





HERRIKO TXOKOAK MIATZEN


Maiatzaren 23an 2. mailakoak Oiartzungo zenbait txoko ezagutzera eta bertako landaretza eta erai-kuntzak aztertzerara joan ginen.

Hiru geldiuene egin genituen:

- 1.** Karrika auzoan. Bertan haurtzaindegia ikusi genuen eta hango txikiekin egon ginen. Ah! Hamaiketakoa ere egin genuen. MMMMM
- 2.** Lete baserrian. Ze ondo tratatu gintuzten. Abere guztiak ikusteko aukera eman ziguten Ibairen Begoña amonak eta Felix aitonak.
- 3.** Ergoien Uztapide plazan. Bidean landaretza aztertu, maraguriak dastatu eta lore batzuk hartu ondoren iritsi ginen bertara eta bazkaltzeko garaia zenez... Zenbat osin eta menda-belar aurkitu genuen gure jolasetarako.

Ikastolara nekatuta iritsi ginen, baina gauza asko ikasita. Inbidia duzuela? Hemen ba gure ibilaldiaren mapatxoa, zuek ere egin dezazuen.

LEHEN HEZKUNTZA 2





LEHEN HEZKUNTZA 3

IGARKIZUNAK



1. Zer dela eta zer dela irakurtzeko edo marrazkiak ikusteko balio duena eta zinean bezain gogokoa izan daitekeena?
2. Zer dela eta zer da Cegasak saltzen duena eta Duracellek ere, hatzen tamainakoa dena eta jostailu batzuk berari esker funtzionatzen dute?
3. Nik esan eta zuk entzun, pentsatu eta erantzun, hegazkina baino azkarragoa den eta uretan bizi den animalia ugaztuna.
4. Zer dela eta zer dela... gainean etxetxoa dauka, beldurtzen denean han sartzen da eta barraski-
loa bezain motela dena?
5. Zer dela eta zer da letxua bezain berdea eta kangurua bezain saltaria den intsektua?
6. Zer dela eta zer dela gizakiaren laguna den, isats luzea eta hortz handiak dituen eta untxia bezain azkarra den animalia ugaztuna?
7. Zer dela eta zer da, baratzetik hartzen da, eta entsaladan, piztan edo espagetietan jartzen da eta odola bezain gorria da. Zer da ba?
8. Zer dela eta zer da sua dariola hegan egiten duen animalia?
9. Zein dela eta zein da... aurpegia tortilla bezain horia eta begi estuak eta alaiak dituen?

LEHEN HEZKUNTZA 4

ANIMALIAK

OBIPAROAK

Arrautzak jartzen dituztenak dira

BIBIPAROAK

Kumeak umetokian garatu eta erditu egiten dituztenak dira.

BARNEKO ERNALKUNTZA SEXUALA


Arranoa | Enara | Txantxangorria

KANPOKO ERNALKUNTZA SEXUALA

Sardinak | Izokia | Zapaburua

BARNEKO ERNALKUNTZA SEXUALA

Behia | Zaldia | Txakurra



**Izan zirelako
gara,
garelako
izango dira**



BREITAINIARREKIN ESPERIENTZIA

DBH 3

Kaixo! Demat!

Oraindik gogoan dugu Jaione Ugaldebere, DBHko ikasketa-burua gelara sartu zenean albiste bat zuela esanez. Frantsesekoak bere inguruan bildu eta berriaren zain geratu ginen.

Denok esku zabalik hartu genuen proiektu hau, ilusio eta gogo handiarekin.

Hasieran ez genuen beharrezko kopurua betetzen, eta DBH 4. mailako zenbait ikasleri esker, proiektua aurrera atera genuen.

Beraien eskutitzak iritsi eta berehala erantzun genizkien, nahiz eta oso berandu iritsi ziren.

Ongi etorria, martxoaren 24an izan zen, goizeko 10:00ak aldera iritsi ziren, gure etxeetara eraman eta "Korrika"ra abiatu ginen. Bertan ilusio handiz korritu zuten, beraiek ere gure egoera antzekoa bizi dutelako Breitanian Frantziarekin. Datorren urtean beraiek ere Korrika moduko bat egingo dute lehen aldiz bretoiaren ofizialtasunaren alde, guregandik ideia hartuaz, eta bertara gonbidatu gaituzte, arrakasta bera edukiko duelakoan.

Astea abiadura handian igaro zen, denbora asko pasa genuen elkarrekin, adibidez, Zugarramurdira ibilaldia eta azken egunean afaria. Azken egunean, martxoaren 30ean, despedidan, negar malkoekin agurtu genituen.

Breitania joateko egunaren esperoan, denbora luze egin zitzaigun. Azkenean iritsi zen eguna, apirilaren 23a. Goizeko 6:00etan elkartu ginen eta bertakoei agur esan ondoren, 13 orduz bidaiatu genuen. Nekatutik eta egonezin ikaragarriarekin iritsi ginen.

Gero bakoitza bere etxera abiatu zen. Ondorengo egunetan, ederki pasa genuen, denak elkarrekin Bresteko kaleetan, bertako museoetan, inguruko herrietan... bertako jendea eta kultura gehiago ezagutuz. Hauek ere azken egunean afari bat eskaini ziguten beraien instrumentu, dantza, abesti... erakutsiz.

Azkenean iritsi zen etxera itzultzeko ordua, despedida goxo baten ondoren, autobusean sartu eta gezurra badirudi ere, ez genuen malkorik bota bertan igerotako esperientziak tristura hori gainditzen zuelako.

Bidaia honek, gauza asko irakatsi dizkigu. Bai hizkuntza aldetik, baita pertsona bezala ere.

Ulertzeko gaitasun nahikoak ditugula ikusi dugu, 3 urte hauetan hiztegi oso zabala lortu dugula, eta komunikatzeko orduan, zailtasun gehiago eduki badiugu ere, nahiko ondo moldatu gara praktikatzeko orduan. Pertsona aldetik, "ezezagun" baten etxean bakarrik egotean, gehiago errespetatzen ikasi dugu.

Beraz, errepikatzeko moduko bidaia dela iruditzen zaigu eta hurrengo urtekoak esperientzia hau probatzera animatzen ditugu.

Kenavo! Agur!



AGENDA 21

Agenda 21en barruan gure ikasleek hainbat hausnarketa egin dute eta zenbait lan burutu ere bai. 4. mailakoen gaia **ERRAUSTEGIAK izan da eta hona hemen gure gaztetxo batzuen iritzia zein den. **JAKIN DEZAGUN.****

ERRAUSGAILUEN ARAZOARENTZAT ALTERNATIBAK

Gipuzkoan, zabor erraustegi handia eraikitzea erabaki da, eta honentzat erabakitako azken kokalekua Zubietan auzoko Aritzabaletan izan da. Gipuzkoako errauskailuaren aurkako plataformek adierazi dute, bertan ezarri nahi duten errauskailuak ez duela egungo legedia betetzen, hirigune ezberdinetatik kilometro bat baino gutxiagoko distantziara egongo litzatekeelako, gutxienez bi kilometrora kokatu beharko litzatekeenean. Hau dela bide, ondorio larriak ekarriko lituzke erraustegia eraikitzeak, alde batetik, arazo teknikoak eta bestetik, osasunari loturikoak.

Itxura denez, erraustegiek sortzen dituzten milaka molekulen artean dioxinak izenekoak aurkitzen dira, osasunarentzat oso kaltegarriak direnak zalantzarik gabe. Ildo beretik, adituek burututako azterketek ondorioztatu dute, erraustegietatik gertu bizi diren populazioen artean, argi ikusten direla errausketak sortzen dituen kalteak biztanleengan; aldaketa hormonalak, minbizi kasuak edota arnas arazoak dira adibiderik garbienak. Arazo teknikoei dagokienez, berriz, itxuraldatzea aipatu behar da. Alberto Frias, Eguzki talde ekologistako bozeramaileak esandakoaren arabera, lehenik errausgailuaren eraikina dago, eta honek errausketa instalazioraino goi-tentsio-ko lineak eraman behar direla eta, itxuraldatze elementu bat baino gehiago egongo dela dio. Are gehiago, errausketa-instalaziora egunero kamioi asko joango denez, honek ere, zarata eta ingurugiroaren kutsatzea ekarriko du.

Bestalde, alternatibei dagokienez, Fidel Vicandi, Segigan Zabalgarbiko prentsa-arduradunak aipatutako moduan, errausketarako guneak ezinbestekoak direla dio, ezinezkoa baita guztia birziklatzea. Gainera, etxeko hondakinekin oso zaila dela kalitate oneko konpostajea, hau da, janari hondakinak erabilgarri bihurtzea. Baina nire iritzia bestelakoa da. Nire ustetan, badaude errausgailuaren alternatibak edo arazo hau konpontzeko proposamenak. Hauetako bat, birziklatzeko lantegi gehiago eraikitzea da, jendea birziklatzera eta zabor gutxiago sortzera bultzatu edo motibatu beharko litzatekeela ere iruditzen zait. Birzikla ezin daitezkeen zabor hauekin, berriz, hauen kopurua murriztea edo hauek etengabe ugaritzeko joera moteldu beharko litzatekeela iruditzen zait.

Konklusio gisa esan dezaket, erraustegi bat eraiki aurretik, ondo pentsatu beharko litzatekeela, sortzen dituen kalteetan arreta jarritz eta ekarriko dituen irabazi ekonomikoei gutxiago begiratzuz. Gainera, lehen aipatutako moduan, badaude erraustegia saihesten duten alternatibak, hauen artean esanguratsuena, jendea birziklatzera eta zabor gutxiago sortzera bultzatzea da.

Izaro Lekuona (DBH 4. maila)



ERRAUSTEGIAK: KUTSADURA ETA MINBIZIAREN ITURRI

Gaur egungo bizimoduan, gizakiok zabor ugari sortzen dugu; papera, gai organikoak, beira, pilak, olioak... Zabor hori guztia gure etxe inguruan eduki nahi ez dugunez, zabortegiak erraustegiak sortzen ditugu. Alde batetik egokia da, gure zaborrekin zerbait egin behar baita. Baina bestetik, erraustegiak isurtzen dituzten gasekin gure atmosferaren zulaketa gero eta gauza larriagoa bihurtzen ari da.

Arazo horien arrazoi nagusia, gizakiak urteetan zehar pilatutako zabor kantitatea da, nahiz eta gaur egun zer edo zer birziklatzen den. Gizakiok ez bagenu zaborrik sortuko, ez litzateke horrelako erraustegirik beharko, eta ez guke gure planeta hainbeste kutsatuko. Beste eragile garrantzitsu bat, jendeak gai honi buruz duen utzi-keria da. Inork ez du nahi bere etxe inguruan erraustegirik ipintzea, baino hori gerta ez dadin, ez dugu ezer egi-ten, ez zabor kantitatea gutxitu, ez eta birziklatu ere.

Gure atmosfera gehiago zikin ez dezagun, irtenbiderik egokiena erraustegirik ez ipintzea da. Horretarako, zabo-rra gutxitu behar da, eta hau gerta dadin, norberak bere etxeko zaborra ahalik eta kantitate gutxienekoa izaten saiatu behar du, eta geratzen den gutxi hori, ahalik eta gehien birziklatu.

Erraustegiek ondorio ugari ekar ditzakete: batetik atmosferaren zuloa handituko luke, eta horrekin lurraren tenperatura asko handitu urteetan zehar. Eta, bestetik, erraustegiaren inguruko herrietako jendeari minbizia sortzeko aukera handituko litzaioke. Beraz, esan dezakegu oso garrantzitsua dela bakoitzak zenbat zabor sor-tzen duen, eta horrekin zer egiten duen, azken finean, bere buruarentzat eta ingurukoentzat kalteak ekarri bes-terik ez baitu egiten.

Eneritz Zalakain (DBH 4. maila)

ZABOR KANTITATEA MURRIZTEA, ERRAUSTEGIAK ERAGOZTEKO LEHEN PAUSOA

Denok dakigu gaur egungo gizartean arazo larria dugula zaborrarekin; zabortegiak gainezka daude, eta ezi-nezkoa da sortutako zabor guztia hondakindegietan pilatzen jarraitzea. Baina hori ez da nahikoa autorita-teek, herriaren iritzia kontuan izan gabe, erraustegien ideia aurrera eramateko.

Erraustegiak hondakinen bolumena murrizten dutela egia da, baina erreketak horietan substantzia asko sortzen dira; errautsa nagusiki. Hondar hau urtu egiten da, eta tenperatura jaistean, oreka solidotu egiten da. Zer egin honekin, ordea? Autoritateek diotenez, errepideetan edo eraikuntzan, material gisa, erabil daiteke, Alemanian egiten zuten bezala. Baina konturatu dira, ez dela inerteza, hau da, ez dela batere segurua, eta eraikuntzetan erabiltzeari utzi diote. Hortaz, beste hondakindegia bat beharrezkoa litzateke.

Errautsez gain, beste hainbat substantzia toxiko ere sortzen dira; dioxinak adibidez, Munduko Osasun Erakun-deak konposatu kartzinogenoen zerrendan sartu dituenak. Handia da, substantzia hauek osasunarentzat oso kaltegarriak direlako susmoa. Kantzerigenoak direla uste da, eta arnasa-aparatuko arazoak sortzen dituela fro-gatzen ari dira. Beraz, ulertzekoa da, geure inguruan erraustegirik nahi ez izatea.

Arazo honek konponbide bakarra du, nire ustez; ZABOR KANTITATEA MURRIZTEA. Horretarako, Belgikan, eta Europako beste zenbait herrialdetan egiten den bezala, produktuei behar baino bilgarri gehiago jartzea zigortu daiteke. Edo postontzietara iristen den publizitatea arautu. Baina, hori, autoritateak egin behar du.

Gainontzeko herritarrek ere hainbat gauza egin ditzakegu arazoa konpontzeko. Lehenik, birziklatu egin behar dugu, baina era egokian. Suitzan egiten den antzera, poltsa bereziak bana litezke herritarren artean, kode berezi batekin. Honela, inork gaizki birziklatuko balu, isuna jarriko litzaioke.

Bestalde, konposta ere irtenbide egokia da, gure hondakinen erdia materia organikoa baita. Hondakin horiek, kontrolpean degradatzen dira, eta lurra ongarrantzeko baliagarria den substantzia bat lortzen da. Ondorioz, tra-tatzera eraman beharreko zaborra asko gutxitzen da.

Argi dagoena, ordea, gauza bakarra da; gutxien eragiten duen zaborra, sortzen ez den horixe dela, alegia. Horretarako, bai guk, eta baita autoritateek ere, lana egin behar dugu. Erraustegiak jartzea ez baita konponbi-dea.

Maialen Arbide (DBH 4. maila)



SAHARARA BIDAIA

Udararo udararo ehunka saharai etortzen dira basamortutik espainiar estatura, baita Euskal Herrira ere. Guztiak beraien bizi baldintzen egoera kaskarragatik etortzen dira udako bi hilabeteak pasatzera, hango tenperatura altuak jasangaitzak baitira denentzat, bereziki haurrentzat.

Duela hiru urte hartu genuen haur saharai bat etxean, nahiz eta herrian lehenago egona zen, guretzat esperientzia berria izan zen. Ondorengo urtean ere gurekin egon zen eta bere bitartez beren ohitura eta bizimoduen berri izan genuen.

Dagoeneko 12 urte bete dituenek, ezin izango du udako kanpaina batekin berriz itzuli; beraz, aste santuko oporretan bisitatzera joan ginen basamortura eta bide batez kanpamenduak gertutik ezagutzera.

Bidaia arratsalde partean hasi genuen eta bertara goizaldeko zazpiak inguruan iritsi ginen. Bakoitza beren auzoetara banatu gintuzten eta jaimetara deitu zuten megafonia batetik gure bila etor zitezen. Segituan etorri eta etxe aldera eraman gintuzten. Iritsi ginenerako bere ama gure zain zegoen ongi etorria emateko. Besarkada handiz bete gintuzten segituan eta berehala sartzeko gonbitea luzatu. Mantaz estali gintuzten, izugarritzko hotza egiten baitu han gauean.

Horrelaxe hasi genuen lehenengo eguna.

Egun hartan beren herria erakutsi zigun gure etxean egon zen neskak: merkatua, plaza, ahuntzak edukitzen zituzten lekuak... Bertako guztiek oso harrera beroa egin ziguten, kalean topatzen genuen edonork agurtzen gintuen eta batzuk gurekin hitz egiten gelditzen ziren.

Janari faltan ere ez ginen inoiz egon, hiru otorduak behar bezala egiten genituen, otordu tarteetan tea eskaintzen ziguten eta dena oso goxoa zegoen.

Eduki genuen arazo bakarra etxeko zaharrekin komunikazio eza genuela, hau da, gazteek kanpoan ikasi zutelako bazekiten gaztelania, baina amarekin ezin genuen hitz egin, zeinuen bidez ulertu behar izan genion elkarri.

Etxeko lanak denen artean banatuta dituzte; ama emakumeen biltzarrera joaten zen goizetan; ahizpa zaharrena etxean geratzen zen haurrak zaintzen eta gure etxera etorri zen alaba gazteenak goizean erostetak egin eta arratsaldetan familiako ahuntz guztiak bildu eta beren tokira eramaten zituen, bertan jetzi eta eguneko esnea lortzeko. Bertan egon gineneke egunetan gu ere beraien zereginetan ibili ginen.

Gau aldera, inguruko jaimatakoak, familiakoak... denak batera egoten ziren. Oso harreman estua dute elkarren artean eta oso alaiak dira. Gainera, musika entzun orduko emakume eta haur guztiak dantzan hasten ziren eta besteoi ere dantzara animatzen gintuzten. Etxeko gizonezko gehienak ez dira bertan bizi, baina hauen partetik familia sostengu handia jasotzen dute bertakoek.

Segituan beraien eskuzabaltasuna agerian utzi zuten, joan ginen hirurei bertako jantzi eta pitxiak erostera atera gintuzten gaueko hamaikak aldera eta hango zero izartsua lehen aldiz ikusteko aukera izan genuen, benetan ikusgarria dena.

Eskuak era margotu zizkiguten hennaz.

Gurekin batera egiten zuten lo amak, etxeko erreferentea denak, eta haurrek.



Hiru haur genituen etxean lau, hiru eta urte betekoak, hauek egun guztian jolasean pasatzen zuten etxeko patioan, nahiz eta ez jostailu asko izan. Zahar-ragoak diren haurrak, ordea, denak eskolaratuak daude eta eskoletako ordutegia bertako tenperaturaren arabera jarritakoa da: goizez 8:00etatik eguerdiko 12:00etara eta arratsalde 6:00etatik 7:30era, eguerdian beroa egiten duelako. Haur ezinduen eskola bat ere bisitatu genuen eta hauentzat proiektu berriak dituzte gauzatzeko.

Hurrengo egunean siroko bat ere bisitu genuen, haize asko zegoen eta hondar asko mugitzen zuenez, ondo babestuta atera ginen kalera bertako jantzia "melfa" jantzita.

Gauza gutxi izan arren oso antolaketa ona dute: bateriak kargatzen dituzte eguzki plaken bidez, iluntzean argia izan dezaten jaimetan, bertako etxeetan. Eta bizileku sarrera bakoitzean ur zisternak dituzte mangeraz etxeetara bideratuak ura eskura izan dezaten. Zisternak betetzera astean behin edo kamioi bat pasatzen zen.

Komunikazioa, ordea, oso zaila da. Postarik ez dago, garraio bide oso eskasa eta diru falta. Honengatik jende gazteak kanpora atera nahi du lan egitera eta familiakoei dirua bidaliz laguntzera.

Baina, hala ere, oso indartsu daude beraien herria aurrera ateratzeko gogoz, eta oso eskertuak kanpotik ematen diegun laguntza guztiaz.

Azkeneko gauean ere jende ugari hurbildu zen etxera gu agurtzera, estatuan dauden senideentzat paketeak ematera eta opariak ere ekarri zizkiguten. Dantzatu, kantatu, tea edan, elkarrekin egon eta maletak egin ondoren plazara eraman gintuzten lagun batzuen kotxe batean. Eta han bukatu genuen bertako kanpamenduetako bisita. Denak agurtu genituen, eta noiz bueltatuko ginen ere galdetu ziguten.

Hantxe amaitu zen basamorturako bidaia.

Aireportura iritsi eta ez ziguten uzten hegaldian ateratzen. Hegazkina ez zenez iritsi, bertan pasa behar izan genuen gaua. Hurrengo goizean utzi genuen Afrika eta Euskal Herrirantz abiatu.

Bidaiaren amaiera iritsi eta lagun batek zera galdetu zidan: "Berriro ere bueltatuko al gara Saharara?"

Gauza asko ikusi ditugu guri arrotzak egiten zaizkigunak, mundu berri bat ezagutu dugu, pentsatzeko modu berriak, ohitura eta bizimodu desberdinak. Hau guztia, gertutik bizi ondoren, errepikatzea merezi duela pentsatzen dut.

Garazi Aramendi (DBH 4. maila)



GAZTE FOROA

Urte guzti honetan zehar Gazte Foroaren izenean, Oiarzungo gazteentzat hainbat ekintza antolatu ditugu:

- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> 1- Abesti emanaldia 2- Trial-Sin erakustaldia 3- Sukaldaritza tailerra 4- Fimo eta abalorio tailerra 5- Txapak egiteko eta nikiak tintatzeko tailerra 6- Lehen sorospenen ikastaroa | <ul style="list-style-type: none"> 7- Kortoak ikusi eta hauei buruzko hitzaldia 8- Arritxulora asteburu pasa 9- Aste Santuan, malabare eta hankapalo tailerra 10- Lekunberrira, zuhaitzetan ibiltzera 11- Loriartzunerako, bidegorriko kumunen apainketa... |
|--|--|



Oraindik beste hainbat ekintza antolatuko ditugunez, anima zaitezte parte hartzera!

KUADRILLATEGI

Bukatzen hasi da... aurtengoa


Ze ingo dugu gaur? Ta hurrengo astian? Non elkartuko ga? Edo, urtero eongo da Kuadrillategi? bezalako galderak entzuten ditugu, astiro baina astero. Ze ingo dugu, ze antolatu zute, ze, ze, ze. Ta zezanak harapatu digu, berriz.

Kurtsoa bukatzen hasi da, laster ez zaigu hurrengo asterik geldituko. Ideiak, ordea, aspaldi bukatu zitzaizkigun. Eta hori da berez Kuadrillategi; ideiak, gogoak. Zer egin nahi dugun, zer izan nahi dugun, hori da Kuadrillategi.

Baina, zer egin nahi dugu? Zer izan nahi dugu? Zerbait egin nahi dugu? Zerbait izan nahi dugu? Gu gara orain galderak egiten ditugunak. Zer egingo dugu hurrengo urtean? Urtero egongo da kuadrillategi? Guk gogoak baditugu, badi-tugu ideiak. Erantzuteagatik ere, erantzun ditzakegu gure galderak. Baina keba, hasieran ere esan

genuen, zuek zarete Kuadrillategi, zuek nahi duzuen hori izango da, zuek nahi baduzue behintzat.

Eta besterik ez. Uda honetan ere, euskara goxatu, euskaraz gozatu. Baina batez ere gozatu. Gozatu bizitza, edo laburrago, bizi. Kurtso berriarekin elkartzen bagara, primeran, zuen esanetara izango gaituzue. Eta elkartzen ez bagara ere, beno, barkatuko diguzue euskara batua alde batera uztea, ze krixto, elkartzen ez bagea re aupazuek, segi hola!!



* Hasieratik gukin eon zazten hoiri, eskerrikasko, akaso guk zuei espero aña ez, biño zuek guri asko eman gattuzute, ta horregatik bakarrik mezi izan du. Nahi zuten arte. Ondo bizi.

Kuadrillategiko begiraleak



IRAKURZALETASUNA INDARTU



Euskaraz Bizi egitasmoaren barruan, hirugarren hiruhileko honetan IRAKURZALETASUNA INDARTU plana antolatu eta gauzatu dugu.

Ekintza ugari izan dira hilabeteak iraun duen kanpainan, beti ere ikaslea irakurtzeko zaletasunaren sortzaile eta hartzaile izanaz.

Ekitaldietako gunea erakusketa izan da. Bertan Antton Kazabon idazlearen biografia eta bibliografia eskura izan ditugu. Honekin batera, irakurketako txokoa eta ikasleek elkarri gomendatutako liburuen guneak.

Ekintzen artean, besteak beste, idazleekin topaketak egin ditugu, bai Anttonekin eta baita J.M. Iturralde eta Gotzon Garaterekin ere, erakusketara bisitak, liburu gomendioak, geletako irakurketa txokoak... Azkenean Argitxoren opariak ere jaso ditugu.



ESKUTTUN
EUSKARA ELKARTEA





ELEANITZ PROIEKTUA 12 URTEKO IBILBIDEA



Aurten DBH 4. maila bukatuko duen promozioak duela 12 urte Eleanitz Proiektuari hasiera eman zion taldea da. Erronka handiari aurre egiten joan dira urtez urte eta beti erraza izan ez den arren, ate asko ireki behar izan dituzte eta horrexegatik ibilbide honetan irakasle izan garenok ikastola osatzen dugun komunitate osoarekin esperientzia hau konpartitu nahi dugu.

1995.urteko irailean izan zuten ingelesarekin lehenengo topaketa. "Hello" entzun zuten saio haietan lehenengo aldiz, baita ongi ikasi ere. Ready for a Story and Hocus and Lotus deituriko metodologia antzezten diren ipuinetan oinarrituta dago. Itsaso zen irakaslea eta nahiz eta egun dauden baliabideak ez izan, ilusio handiz ekin zion lan berritzaile honi. Lau urte beranduago Evak hartu zuen erreleboa. Garai hartakoak dira beraien lehenengo idatziak, antzezlanak, "Where's the magician?" eta "The seven little kids" show-a, "The chocolate party" festa ...

Hau dena osatzeko ordu kopurua handitu zen, etapa honetan ere baliabideak asko aldatu dira; honen lekuko ikasturte honetan saritua izan den "Space Search" CD ROM-a.

Ibilbide hau naturaltasun osoz eman zen eta duela lau urte DBHra iritsi zen talde hau. Subject Projects 8 arloekin lotuta dagoen programazioa da. Bertan, gai desberdinen inguruan aritzen dira: Musika, Teknologia, Arteak, Natur Zientziak, Geografia, Literatura, Historia eta Osasuna. Honek guztiak prestatzen ditu ikasleak DBH 3. mailan Gizarte zientziak ingelesez jorratzeko.



SSLIC, "Social Sciences Language Integrated Curriculum" deritzana Gizarte zientziak arloaren oinarritzeko bi gaitan dago banatuta. DBH 3.mailan Geografia lantzen da eta 4. mailan, aldiz, Historia. Ez dezagun ahaztu azken fase hau prozesu baten ondorioa dela, 4 urtetan hasten dena. Aniztasuna kontenplatu duen proiektua denez, etapa bakoitzean ikasleen premietara egokitzen da, beraz, amaierarik egokiena 14-16 urteko ikasleentzat arlo bat ingelesez lantzea ezinbestekotzat jotzen dugu.

Nahiz eta lehenengo promozioa izan, gai izan dira emaitza positiboak lortzeko eta gainera, proiektuarekiko agertu duten jarrera oso baikorra izan da. Beraz, zoriandu nahiko genituzke. Espero dezagun ikastolan garatutako ibilbide hau etorkizunerako ere baliagarria izatea. Ikasle-irakasle arteko elkarlan honek indarrak ematen dizkigu aurrera begira ere proiektu honekin lanean jarraitzeko...

**THANKS TO YOU ALL
AND OUR BEST WISHES FOR THE FUTURE**



Maite Gezala Legorburu

ARRAGUAN JAIO ETA BERTAN BIZITUTAKOA, GAUR EGUN ELIZALDEN BIZI BADA ERE. INDAR HANDIKO EMAKUMEA, KEMENTSUA ETA LANGILEA. AZKEN HOGEI ETA HIRU URTE HAUETAN HAURTZARO DANTZA TALDEKO ARIMA. MUSIKA ETA DANTZA ZALE BORROKATUA. GELDIRIK EGOTEN EZ DAKIEN HORIETAKOA. HAURTZARO DANTZA TALDEKO GIDARITZA LANAK UZTEKO GARAIA IRITSI ZAIO. ORAIN ATSEDENA HARTZEA TOKATZEN ZAIO.

Esan bezala, Arraguan jaioa da, Gezala etxean. Gurasok Luix Gezala eta Joxepa Legorburu. Biek lezoarrrak. Hiru senide dira: Maite zaharrena; Koldo, Oretan bizi dena; eta Joxe Mari, Arraguakoa.

Aitaren aldetik musikarako afizio gaitza zuten etxean ttikitatik. Aitona ere bandako zuzendaria izan zen, Xixilio Gezala. Izebek ez zuten familiarik eta oso kantari onak ziren. Osaba ere txistulari famatua: Polentzi Gezala.

Dantzan lehendabizikoz Lezon ikasi zuen, eta musika-ko afizioa handik ere badatorkio. Ttikitan beti Lezon sartua ibiltzen zen. Han kantatu, pianoa jo... aritzen zen.

Osaba txistularia Frantzian bizi zen eta hark eraman nahi izan zuen musika ikastera Frantziara, baina amari ez zitzaion oso ongi iruditu eta ez zen joan.

Oreretan, Hijas de la Cruz izeneko eskolan, monjeekin egin zituen lehen ikasketak. Hamazazpi urterekin lanean hasi zen Catelsan, Arraguan bertan. Eta hantxe jarraitzen du gaur egun ere, erretiroa hartu bitarte.

Arraguako festetan kantatzen ateratzen ziren, eta haurrei irakatsi ere bai. Horrela, prestatzen zituzten umeak Eguberrietan, Erretereriako txapelketara eramateko. Irabazi ere egin zuten behin baino gehiagotan. Odiartzungo kanta txapelketan ere parte hartzen zuten.

Garai hartan Jon Oñatibiak prestatzen zituen haur batzuk ikastolan, baina ez zegoen gauza askorik arlo horretan.

Mikel Bergaretxerekin ezkondu eta bi seme-alaben ama da. Baina dantzarako eta kanturako afizioa ez du sekula galdu.

Garai hartan erabaki zen haurrek euskal dantzak ikasi behar zituztela ikastolan, eta Sarriegi dantzaria ekarri genuen Hernanitik. Harekin hasi ginen dantza erakusten ikastolan. Aurretik Martxel Ansak ere presta-



tuak zituen hainbat ikasle fandango eta arin-arin ikasleko.

Orduan ume dezente ibiltzen ziren eta berehala laguntza behar zuenez dantzako irakasleak, Marixabel Oroz lezoarrarekin hitz egin, eta bera etorri zen dantzan erakustera. Horrez gero 18 bat urte izango dira Maixabel ikastolara etorri zela. Ikastolako dantza taldea atera behar zen aurrera eta denok ilusio handiarekin batera eta bestera mugitzen zinen gure seme-alabekin.

Pixkanaka-pixkanaka, Maite Haurtzaroko Dantza Taldearen ardura hartzen hasi zen, eta gaur arte. Irakasle asko pasatu dira dantza eskolatik, eta hamaika emanaldi eskaini ere bai.

Gaur egun badu taldeak urteko plana: Inauterietan, San Joan dantzan, Ikastola egunean, Oreretako Gerontologikoan, Xanistebanetan soka dantzan, txistularien alardean, zaharren egoitzara bisitan, dantzari txikin... Bada zerbait. Eta txapelketetan ere parte hartzen dute.

Haurtzaro ikastolako Dantza Taldean urtero-urtero 80 bat ume, gaztetxo ibiltzen da. Gaur egun ehun bat haur dabilta. Hori dena antolatzen kanpotik erraza ematen du, baina badu bere lana. Dantza taldeak, ordea, satisfakzio handiak ere eman dizkio Maitei hogei urte hauetan.

Orain ardura hori utzi, eta bere alaba Alaitzek hartuko du lekukoa. Alaitz ere aspalditik ari da lanean dantzariekin eta ongi egingo dueneko itxaropen osoa dauka Maitek. Eskerrik asko.





ELKARRIZKETA

Izaskun Madariaga

Izaskun Madariaga, gure Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoko ikasketa-burua 30 urte lanean pasa ondoren jubilatzerara doa. Bere lankideok bere ibilbidea omendu eta agertu nahi izan dugu solasaldi honen bitartez.

Noiz eta nola hasi zinen mundu honetan?

1977an, azaroaren 2an hasi nintzen Iturburun, Karrikan lanean. Eskola hau sortu baino bi urte lehenago, beste saiakera bat egin zen, baina ez zen gauzatu. Nik garai hartan puerikultura egina nuen eta guraso batzuk hurbildu zitzaizkidan ea nahi nuen proiektu berri honen partaideia izan. Baietz esan nien eta talde bat sortu genuen. Urte oso bat pasatu genuen astero biltzen, eta azkenean lortu genuen Iturburu sortzea. Batik bat, sortzearen helburua izan zen, emakumeari aukera ematea etxetik kanpo lan egin zezan eta bestalde heziketa eredu berri bat bultzatzea ere.

Zure ikasketak.

Hasiera batetan puerikultura nuen, baina berehala konturatu nintzen titulazio hau ez zela nahikoa nik burutu nahi nuen lana aurrera eramateko. Ondoren magisteritza eta pedagogia egin nuen. Hasiera horietan Granadan haur eskoletako topaketa batzuk egin ziren, eta ni, bertaratu nintzen. Han nolabait, mundu zabal bat ireki zitzaidan. Ikusi nuen estatu mailan pauso batzuk ematen ari zirela, eta nik horixe traslaturatu nahi izan nuen gurera. Esanguratsuen izan zen haurtzaindegi izena haur eskola izenagatik ordezkatzeari, honek suposatzen zuen guztiarekin, konnotazio aldaketa. Ordura arte aplikaturiko zaintzaren eredu, heziketa ereduarengatik ordezkatzera hain zuzen.

Nolakoak izan ziren lehenengo urteak? Garai horietako oroitzapenak.

Hasiera nahiko prekariora izan zen. Bakoitzak ahal genuena eramaten genuen haur eskolara, zakarrontzitik ere, hartzen genituen tresnak... Lokala hutsak bilatzen ibili ginen. Bi ba ziren, bat Ergoingo eskola eta bestea Karrikako eskola, gaur egun Iturburu dena. Iturburu egokiago ikusi genuen eta hauxe aukeratu genuen. Fuerte hasi ginen lanean. Eskola oso gaizki zegoen, eta poliki poliki joan ginen baldintza onetan jartzen, haurrekin bertan lan egin ahal izateko. Lanerako jendea borondatezko jendea zen. Gogoa dut garai hartako gurasoak oso partaide, inplikatu eta borrokalaria zirela. Dena asanbladaren bitartez erabakitzen genuen. Ilusio handiarekin egiten genuen



lana. Proiektuarengan sinesmen handia zen.

Hasiera batetan Errenteriako umeak ere etortzen ziren, haur eskola Oiartzungo umeekin bakarrik betetzen ez zelako. Guraso eta irakasleen aldarrikapena, Iturburu municipal izatea zen. Beti baietza ematen ziguten, baina hau ez zen gauzatzen. 1980an gurasoekin batera udaletxean itxialdi bat egin genuen eta honen ondorioz lortu genuen Iturburu municipal izatea irakasleak funtzionario bihurtu ondoren. Herrian haur-eskola onartzen joan ahala, bertako matrikula igotzen joan zen, eta ondorioz Errenteriako haurrentzat tokirik ez genuen izaten.

Zer suposatu zuen Partzuergoa eratzeak?. Hiru haur eskolen funtzionamendua bat egitea erreza izan al zen?.

Alde batetik 0-3 urteko esparruari etorkizuna zabaltea suposatu zuen, sendotzea, indartzea... Era berean lan asko. Garai horretan, jadanik, Iturburu proiektu sendoa bat ba zen, eta partzuergoa osatzeko, herriko beste bi haur eskolekin elkartzeari suposatu zuen nolabait, berrikotik hasia. Hiru proiektu batean ezkondu behar genituen. Bilera asko eta asko egin genituen eta azkenean orain dagoena lortzea bideratu genuen. Emaizta hemen dago, denon bistan. Denen aldetik asko jarri behar izan genuen, asko hitz egin eta adostu behar izan genuen. Une honetan oso proiektu sendoa, ona eta landua da. Denbora gutxian asko handitu da, eta beti zuloak tapatzen ari gara, urtero gauza berriak sortzen, handitzen... Eskerrak tartean ikastola dagoela, eskaintako azpiegitura eta baliabideak oso inportanteak izan direlako hau guztia behar bezala aurrera ateratzeko. Honek asko erraztu digu lana. Ikastolarekin elkartzeari gure matrikula handitzea ere ekarri du.

Nola antolatzen da zure gaur egungo egun bat?

7:30etik 9:30era umeekin egoten naiz Haurtzaro Txikin. Oso garrantzitsua iruditzen zait eta asko baloratzen dut egunero umeekin gelan egon ahal izate



tea. Ikasketa-buru izateko oso baliagarria egiten zait geletako eta umeen errealtatea ezagutzea eta bizitzea. Azken finean nire lana oso lotuta dago praktika-rekin. 9:30ean bulegora joaten naiz 12:30ak arte. Hautzaro Txikin bazkaltzen dut eta jarraian umeekin errefortzu lana egiten dut bertan.

Nola sentitzen zara zure biloba beste umeen artean haur eskolan ikusterakoan?

Oso ongi, atsegina, goxoa. Beste umeek ere amona deitzen hasiak dira. Ilobaren bizitzan parte hartzeko aukera eman dit. Maila batetan pena daukat, datoren urtean hasiko diren nire beste bi bilobekin haur eskolan ezin egon ahal izatea. Honen harira, bestalde, pozgarria da niretzako hainbeste borrokatu dudan proiektu bateko onuradunetakoak etxeko tikiak izatea, biziki sinesten baitut haur-eskolaren mesedez.

Badakigu zure lana ez dela bakarrik Oiartzungo haur eskoletara mugatzen. Ze beste lan egin edo egiten dituzu?

Gauza asko egin ditut eta gauza askotan parte hartu izan dut. Haur-eskoletako Koordinakunde desberdinetan parte hartu dut urte askotan eta hor ibili nintzelarik Hezkuntza Erreformaren garaia izan zen eta LOGSE legearen eztabaidetan MECekin ekarpenak egitea suertatu zitzaidan. Erreformari lotuta beste hainbat eskuhartze garrantzitsu izan nituen ere Haur hezkuntzako Diseinu Curricularrean parte hartuz, ekarpenak egiten etab., eta baita 0-3ko Dekretua egiteko sortu zen taldeko partaide iraunkorra izanez ere. Nire esparrua gehienbat 0-3koa izan da. Artikulu asko idaztea tokatu zait, hitzaldiak ematea, foro askotan parte hartzea... Dena den, beti aldarrikatu dugu 0-6ko haur-hezkuntza eta berau defendatzen jarraitzen dut beste plataforma desberdinetatik ere. "Infancia" eta "Hik Hasi" aldizkarietako kontseilukidea naiz biak sortu zirenetik. Niri ibilbideko beste ezaugarria formazioaren esparrua izan da. Mondragon unibertsitatean urte asko eman ditut klaseak ematen eta baita eskoletako irakasleak formatzen ere. Gogoratu 2 urteko gelak martxan jarri zituzten garaia, orduan itxura denez nire esperientziaren beharra izan zuten eta ikastaro asko eman nien. 0-3ko irakasleen habilitazioetan ere parte zuzena hartu nuen.

Hainbeste urteetako esperientzi honetatik zer daramazu zurekin? Zerekin geratzen zara? Zer utziko zenuke atzean? Harro al zaude urte hauekin sortutakoaz?


Bai, harro nago, gustura. Neurri handi batetan iruditzen zait, nire ibilbide profesionalean suertea izan dudala eta gainera gustatzen zaidan esparruan lanean aritzeak asko arintzen du dena. Antolakuntzan aritzea gustuko dut, beti erronka berriei aurre egitea aberasgarria da, betetzen nauden lana da. Atze-

an, berriz ez nuke ezer utziko. Dena baliagarri eta garrantzitsua iruditzen zait. Zerekin geratuko nintzateke erantzuterakoan esango nuke, lana asko egin dudala eta nire helburua beti izan dela lana ongi egitea. Atzerrira askotan atera izan ohi naiz, beste errealtate batzuk ikustera. Ez naiz sekulan estankatu, beti ikasteko prest agertu naiz, beti hobetzeko asmoz, beti ikasten, ekarpenak egiten, hauek aplikatzen... Sinesten nuenarekin, kontsekuentea izan naiz, beti aurrera egin izan dut eta honen ondorioz momentu gogor batzuk ere suertatu izan dira, gus-tagarriak ez ziren erabaki batzuk hartzeko garaian adibidez.

Esku onetan uzten al duzu zure kargua?

Bai. Proiektua oso sendotua dago. Profesional handiak daude gure taldean. Talde potentia da, oso inplikaturik. Lana ongi egiten da Partzuergoan eta hau nik esatea oso politta ez bada ere, estatu mailan egindako kalitatean ikerketa batean, eredu bezala hartu gaituzte. Une honetan gure lanaren dokumentazioa interneten zintzilikatzen hasiak gara. Bai, Partzuergo indartsu dago eta nire ondoren geratzen den zuzendaritzak oso ongi menperatzen du proiektua. Bitxikeri moduan aipatu nire ondoren geratuko diren biak, Karrikako haur eskolan nire eskuetatik pasatutakoak direla eta Aiorak hain zuzen Iturburuko erregistroko lehenengo zenbakia duela.

Bukatzeke esan Izaskun, eskerrak eman nahi dizkizugula egindako guztiairengatik. Izan zoriontsu eta disfrutatu aurrerantzean ere.





2007KO BATZAR NAGUSIKO ERABAKIAK GAUZATUZ: BAZKIDE EZ-AKTIBOEN FIGURA ERREALITATEA DA

Aurreko Txinpart alean Batzar Nagusian hartutako erabakiei erreferentzia egiten genien, eta hauen artean Bazkide Ez-Aktiboen figura ikastolako organigraman errealtate egitea.

Ordutik hona Kontseilu Errektoreak gaia jorratu du, eta aplikatzen hasteko erabakia ere hartu du.

► NOR IZAN DAITEKE BAZKIDE EZ-AKTIBOA?

Ikastolako proiektuarekin identifikatua dagoen eta ikastolaren alde lanean jarraitu nahi duen guraso-ohia edo langile-ohia. Beraz, une honetatik aurrera Haurtzaro Ikastolako guraso ohi eta langile ohi guztiek **ikastolako partaide izaten jarrai dezake**.

Modu honetara:

- Ikastolako erabaki nagusietan parte hartze erabakitzalea izaten jarraituko du, Batzar Nagusian iritzia emanez eta botoen bidez.
- Ikastolako momentu esanguratsuetan informazioa jasoko du: Txinpart, Batzar Nagusirako gonbidapena...


- Ikastolako festa, ekitaldi, ekimenetan partaide izango dira: Ikastola eguna, Xanistebanetako taberna...

Horren truke, **bazkide izaten jarraitzeko erabakia hartzen duenak, urtean 10 euroko donazioa** egin beharko du ikastolarentzat, orain arteko moduan, norberak baimendutako kontu korrontetik kobratuko dena.

► NOLA GAUZATUKO DA URRATS HAU?

- 1.- Seme-alabak DBH 4 bukatzean, ikastolarekin eskola harremana bukatzen duten gurasoei, lehen aldiz gonbitea egingo zaie, eta horretarako erabili beharreko inprimaki bat ere emango zaie.
- 2.- Inprimakia ikastolako idazkaritzan daude jada; beraz ikastolako guraso ohi eta langile ohi den edonork badu aukera oraintxetik, idazkaritzan inprimakia jaso eta bere eskaera egiteko.

Ondorengo urratsa izango da **bazkide laguntzaileen** figura garatzea; hau da guraso-ohi eta langile-ohi ez den edozein herritarren ikastolako "bazkide" izateko aukera. Baina hau ere epe laburrean egingo dugu.



ELKARRIZKETA

Elixabete Perez



Hautzaro Ikastolako gurasoa den Elixabete Perez Gaztelu duela hilabete batzuk urgazle izendatu zutela jakin genuenean DBH 4. mailako Euskal kulturako taldeari elkarrizketa bat egitea proposatu zitzaigun. Galdera batzuk prestatu eta azaroaren 23an ikastolara etortzeko gonbita egin genion. Jantoki gaineko areto nagusian elkartu ginen eta gure galderei erantzuteko Euskaltzaindiaren inguruan gertuko informazioa eman zigun. Laster konturatu ginen elkarrizketa bat egitea baino zerbait gehiagora hurbildu ginela. Gu hasi beharrean galderak egiten aurrea hartu zigun eta berak egin zizkigun lehen galderak. Hona hemen berarekin izandako solasaldi interesgarri haren emaitza.

Elixabete Perez: EUSKALTZAINDIA zer den ba al dakizue? Hitz hau entzuten duzuenena zer datorkizue burura? Zertarako balio duen ba al dakizue?

Ikasleak: Arauak jartzen dituen giza talde bat da.

E.P.: Inoiz ikusi al dituzue beren argazkiak?

I: Bai, helduak dira gehienak.

E.P.: Bai, helduak eta gehienak gizasemeak. 24 euskaltzain osoetatik 2 bakarrik dira emakumezkoak [orain hirugarrena ere badago: Aurelia Arkotxa]. Miren Azkarate eta Ana Toledo. Euskaltzain osoen laguntzaile modukoak gara urgazleak. Gaur egun 100 baino gehiago gara, euskalki eta herri desberdinetakoak. Euskaltzain ohorezkoak ere badaude eta emerituak ere bai. Guztiok osatzen dugu Euskaltzaindia.

Bertan egiten dugun lanagatik ez du inork kobratzen; ez da gure ogibidea. Gehienok beste lanbide bat dugu, edota erretiratuta daude.

Baina lan-batzordeak dira Euskaltzaindiaren moto-rea: Dialektologia, Literatura, Onomastika, Gramatika, Hiztegi batua finkatzen duen batzordea... Batzordeetan lan egiten dute euskaltzain osoren batek, urgazle batzuek eta Euskaltzaindian kargurik ez duen beste makina bat jendek. Esate baterako ni, urgazle izan baino lehen, lexikoko batzordean lanean aritu nintzen urte batzuetan. Batzorde horietan aztertzen eta lantzen dira gaiak, baina azken erabakiak euskaltzain osoek bakarrik har ditzakete. Urgazleek lagundu dezakete baina arauak bakar-bakarrik osoek erabaki ditzakete.

Euskaltzaindia da Euskal Herri osoko –dena, hegoa

eta iparra- lurralde guztiak barne hartzen dituen erakunde ofizial bakarra; Madrilgo onespina du, Errege akademia da, (Real Academia gaztelaniaz), erregearen onespina du nolabait esan, eta Frantziako gobernuaren baimena du.

E.P.: Euskaltzaindia noiz sortu zen ba al dakizue gutxi gorabehera?

I: XIX. edo XX. mendean.

E.P.: Bai, 1918. urtean. Eusko Ikaskuntzak biltzar bat antolatu zuen eta han sortu zen Euskaltzaindia eratzekeo ideia, baina ofizialki 1919. urtean sortu zen.

E.P.: Eta zertarako sortu zen ba al dakizue? Euskarara batzeko helburu bakarrarekin sortu zen. 1918tik 1968ra ez zuten lortu eredu bat finkatzea. 1968an lortzen du lehendabiziko aldiz eredu estandar bakarra (Arantzazuko biltzarrean proposatu zena) eta ordutik aurrera lortzen dugu. Denok modu berean idatz dezakegu, batzuek hobeto eta beste batzuek okerrago, baina idazteko modu bakarra, adostua, euskaldun guztientzat balio duena dugu.

Hau dena argitu ondoren, gu izan ginen Eliri itauntzen hasi ginenak.

Zertan desberdintzen dira arauak eta gomendioak?

Araua Euskaltzaindiak euskarara arautzeko, normalizatzeko bete beharrekotzat du, euskaldunok maila batean (jendaurrean, maila jasoan) ari garenean batez ere bete beharko genukeena. Hau da, arauaren bitartez Euskaltzaindiak gizarteari esaten dio: "Guk uste dugu honek horrela behar duela izan". Gomen- dioan, berriz, nolabait esan, Euskaltzaindiak dio,



“begira, hainbat aukera egon daitezke, baina guk uste dugu hobe zenukeela... baina oraindik ikusi beharko dugu gauzak nola doazen”.

Nolanahi dela ere, Euskaltzaindia da gizartean hizkuntza kontuetan gomendio eta arau horiek emateko ahalmena eta itzala duen erakunde ofizial bakarra. Gero, jakina, beste kontu bat da gizarteak kasu egiten dion edo ez.

Hizkuntza guztiek behar al dituzte arauak?

Denok, (buruko edo bestelako arazo berezirik ez dugun) munduko hiztun guztiok daukagu buruan gure hizkuntzaren gramatika, arauak, baita artzain analfabeto batek ere.

6000 bat hizkuntza omen daude munduan eta gurea oso gauza txikia da mundu osoari begiratzen badiogu. Hiztun guztiok, denok, swahiliz mintzatzen denak ere bai, dakigu gure hizkuntza erabiltzen, denok ditugu arauak gure buruan. Gero, beste kontu bat da denok buruan daukagun hori idazten; hau da, paperean marrazten, hasten garenean edo elkarri esaten hasten garenean zer egiten dugun. Hor arau batzuk finkatu behar dira hizkuntzen batasunerako.

Inoiz mexikar, andaluz edo argentino bati entzun al diozue hitz egiten? Bakoitzak hitz egiten duen bezala idatziko balu, zer gertatuko litzateke? Iruditzen zaien bezala idatziko luketela. Andaluziako horrek idatzi duena mexikarrak ulertu nahiko balu oso zaila egingo litzaioke. Gainera, momentu bat iritsiko litzateke bi hizkuntza edo gehiago izatera iritsiko liratekeela. Bakoitzak bere erara bakarrik idatziko balu, bere etxeko erara bakarrik idatziko luke azkenean. Hor arauen bat behar da hizkuntzaren batasunari eusteko. Testu liburuak zein hizkuntzatan egongo lirateke bestela? Zein hizkera moldetan?

Hizkuntza normalizatu bat izatea idazkeraren aldetik oso garrantzitsua da. Munduko hizkuntza gehienek ez dute idazteko sistemarik. Lehen aipatu ditugun 6000 hizkuntza horietatik oso gutxi dute idazteko sistema. Areago, hizkuntza horietako gehienak desagertuko dira sekula inork hizkuntza horietan idatzi gabe; ahozko moldean besterik ez dira bizi izan.

Hizkuntzaren bizitzarako oso inportantea da idazteko modu finko bat edukitzea, modu berean adierazteko. Orduan, arauak zertara datozen? Arauak datoz, bada, gure hizkuntza erabat normalizatuta ez dagoe-lako eta normalizatu behar direlako hainbat kontu. Ahozko hizkeren, euskalki eta gainerakoen ugariaren ondoan idazteko modu bakarra izatea da helburua azken finean.

Ekarri dizuet urgazle izendatzean eman zidaten diploma. Hauxe jartzen du:

“Euskaltzaindiak Elixabete Perez Gaztelu andrea, euskararen alde orain arte egin dituen lanen esker-

erakutsiz eta gerokoen pizgarri urgazletzat hartu du. Bilbon 2006ko uztailaren 14an.”

Aurten 35 euskaltzain urgazle berri izendatu dituzte, horien artean zu. Nola egiten da aukeraketa? Urgazle izateko zein dira eskatzen diren baldintzak?

Urgazleak euskaltzain osoek aukeratzen dituzte. Hiru euskaltzain osok bat etorri behar dute norbait proposatzean eta gainerakoei aurkeztu. Euskaltzain osoen gehienek bat etorri behar dute proposamenarekin. Bi urtean behin Euskaltzaindiak izenda ditzake urgazle berriak nahi izanez gero; ez da derrigorrezkoa. Aspaldi honetan urte batzuk zeramatzatzen berritu gabe, horregatik oraingo honetan hainbeste.

Urgazleen zeregina da, hau da, laguntzeko modu nagusia da, nire ustez, Euskaltzaindia gizartean egotea, gizartean Euskaltzaindia txertatzea. Orintxe egiten ari garena (elkarrizketa hau) Euskaltzaindia gizartean zabaltzeko egiten duen lehenengo lana da urgazle naizenetik. Nik aukera hau izan ez banu, ezin go nizuen kontatu Euskaltzaindia zer den, nola funtzionatzen duen... erakundeari laguntzeko beste aukera bat da hau.

Bidenabar, ba al dakizue Xabier Lete oiartzuarra ere euskaltzain urgazlea dela?

Inoiz uzten al da urgazle izateari?

Ez. Nik ez dut entzun inoiz inork uko egin dionik horri. Ezin bazara moldatu bileretara joateko, bileretara joateari utziko diozu, baina inork ezin dizu kargu hartu horregatik, borondatezkoa da guztia. Euskaltzain osoek ere ez dute inoiz uzten, bizi bitarteko kargua da, baina orain estatutuak aldatu dituzte eta euskaltzain emerituak ere badaude, euskaltzain oso 75 urtetik gorakoak. Emerituak euskaltzain osoak dira, baina, adina dela medio, aukera ematen diete atseden pixka bat hartzeko eta oso berriak (proporazio jakin baten arabera) izenda ditzakete emerituen ordeztu. Euskaltzain oso eta emeritu horiek joan daitezke bileretara, botoa eman dezakete, baina ez daude behartuta ekitaldi guztietan parte hartzera.

Manuel Lekuonaren lanaren berri emango al zeniguke?

Nik harreman handiagoa izan nuen Juan Mari Lekuonarekin, hau da Manuel Lekuonaren ilobarekin. Juan Mariren ikaslea izan nintzen Deustuko Unibertsitatean, hemen Donostian, Euskal Filologia ikasi nuenean eta oso harreman estua izan dugu. “Bidegileak” deitzen den bilduman (bilduma honetan argitaratzen dituzte euskararekin zerikusia izan duten hainbat jenderen biografiak eta lanak) duzue argitaratua beste bi lankidek (Ana Toledo euskaltzain osoak, Esther Zulaikak) eta hirurok egindako Juan Mariren biografia.



Manuel Lekuona, "Lekuona Zaharra" deitzen ziotena, Juan Mariren osaba zen. Euskaltzainburua izan zen eta oso lan ona egin zuen, batez ere ahozko literaturan eta ahozko jakintza biltzen eta baita Oiartzungo kultura lantzen eta zabaltzen ere. Jakingo duzue Oiartzungo Liburutegiak bere izena duela.

Manuel Lekuonaren lana eta oraingo zure lanaren arteko desberdintasunak zein dira?

Tira, lotsa pixka bat ere ematen dit gizon handi harekin konparatzeak. Nik esango nuke ez dutela gure lanek elkarren antz handirik, non eta ez ditugun "kultura" deitzen diogun eremu zabal horretan kokatzen. Baina, jakina, bera beste gai batzuk lantzen eta beste maila batean. Gainera, bera Euskaltzainburua izan zen eta ni urgazle xume bat besterik ez naiz. Akaso, batuko gintuzke euskararekin eta euskararen gaineko gauzeekin gozatzen dugula. Nik bai, behintzat; berari ezin galdetu, ordea.

Zein da zure iritzia egungo euskararen egoerari buruz?

Lehenik eta behin esan nahi dizuet niretzat hizkuntza mintzabide bat besterik ez dela, baina era berean ez dela gugandik kanpo dagoen zerbaite; hizkuntza hiztunok egiten dugu. Orduan euskararen egoera nola begiratzen duzun, euskal hiztunak oso errealitate ezberdinetan bizi gara. Faltzesen bizi den batek edo Atharratzen edo Enkarterrian bizi denak oso modu ezberdinean biziko du euskararen egoera. Euskararen egoera ez da bat eta bera: lekuaren arabera, adinaren arabera, arloaren arabera...

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, eta batez ere Gipuzkoan dago egoerarik hoberena, euskaldunik gehien. Bide batez, nik, aukeran, nahiago nuke horren ondoan hobetoxeago egingo bagenu, baina... Hala ere, lehendabiziko gauza euskaraz egitea da.

Nafarroan eta Iparraldean ezberdina da. Nafarroan oraingo agintari politikoek ez dute batere laguntzen euskara bultzatzen, nahiz eta indar eta gogo handia dagoen, eta Iparraldean, horretaz gain, ez dut ikusten nahikoa jende, oso gutxi dira, ez dago enpresarik... orduan euskaldunek oso indar gutxi dute.

Baina ez dugu ahaztu behar gaur egun, lehendabiziko aldiz, euskararen historian izandako bitarteko hoberenak ditugula euskara bultzatzeko, euskaraz mintzatzeko, batez ere diru aldetik. Orain adina, Euskadiko Autonomia Erkidegoan batik bat, ez dugu sekula izan.

Ume (ia) guztiek euskaraz ulertzeko gaitasuna dute Euskal Autonomia Erkidegoan. Beste gauza bat da zuen edadere iristean zer gertatzen den. Hor beste eragin batzuk sartzen dira jokoan (ez dugu ahaztu behar mundu globalizatuan bizi garela), bide "naturala" edo izan beharko lukeena, euskaraz egitea, norbe-

raren hautu, aukera bihurtzen da: gazteak hautatu behar du euskaraz egitea.

Gune euskaldunetan batez ere, egungo desafioa erabileran dago: ZERTARAKO / NOREKIN / NOLA; horretan asmatu behar dugu. Zein erregistro, zein hizkera modutan aritu behar dugun jakiteko gaitasuna garrantzitsua da. Niri ez zait oso egokia iruditzen lagun artean liburuetan bezala hitz egitea, eta alde-rantziz ere ez, egoera formaletan tabernan egongo bagina bezala hitz egitea.

Euskal kulturako lana egiterakoan zalantza bat izan dugu: nola idatzi beharko genuke ihauteriak, inauteriak ala inauteriak?

Nik ez dizuet emango erantzuna, non bilatu dezake-zuen esango dizuet: www.euskaltzaindia.net. Erraza ezta? Euskaltzaindiaren web ofiziala da, bertan Hiztegi batua deitzen den atalean klik egin eta IH edo IN sartzen baduzue segituan etorriko zaizue IN edo IH hasiera duten hitz guztiak. Bi segundotan daukazue erantzuna. (Azalpen honen ondoren INAUTERIAK idatzi behar dela argitu zuen Elixabetek).

Beste ideia batzuk ere gurekin partekatu nahi izan zituen. Besteak beste, hizkuntza, lehenik eta behin, ahozkoa dela, eta ahozkoaren ondoren datorrela hizkuntza hori idaztea. Bakar-bakarrik idazteko erabiltzen den hizkuntza, hizkuntza hila dela. Idazteko eredu finkatzeko orduan hizkuntza guztiek ez diotela bide berari ekin ere esan zigan.

Irakurri egin behar dela, gustuz eta ondo pasatzeko irakurri behar dela ere azpimarratu zigan. Gomendio batzuekin bukatu zuen solasaldia: poesia gustuko dutenentzat, Xabier Lete oiartzuarraren azken liburua. Narrazioa nahiago izatekotan, berriz, "Amaren eskua" edota Harkaitz Canoren edozein aukera onak izan litezkeela gure adinekoentzat esan zigan.


Eskerrik asko Elixabete!!

► EUSKAL KULTURAKO IKASLEAK (DBH 4. MAILA)





MARRAZTU BORLA EZ DAUKATEN BI IPOTXEI



NOR NOREKIN?





Goitik behera, ezkerretik eskuinera:

Beñat Irazu · Olaia Azpiroz · Aitor Bereziartua · Beñat Boada · Jaione Gonzalez · Iker Garmendia ·
Haritz Azkarate · Mikel Perez · Jon Sasiain · Nerea Azurmendi · Gexan Mendizabal · Inaxio Lekuona

Garazi Aramendi · Gorka Vicente · Oier Carabias · Irati Perez · Imanol Moreno · Borja Perianez ·
Eneritz Zalakain · Lur Mitxelena · Enaitz de las Heras · June Retegi · Maialen Beramendi

Aitzol Mendiburu · Eneko Huitzi · Leire Etxepeteleku · Dani Beaumont · Ainhoa Orkaizagirre ·
Ainhoa Gomez · Irene Barrenetxea · Maialen Etxeberria · Elena Carcedo

Olaia Barrenetxea · Ugaitz Rodríguez · Izaro Lekuona · Alazne Odriozola · Aritz Etxegia · Nerea Vallejo ·
Eduarne Moreno · Unai Pintado · Maialen Arbide · Izar Makuso · Aizpea Makuso · Amaia Arriaran



Mendiburu kalea, 2 • ☎ 943 49 47 19



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



TAJO
Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES



Biok
ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea, 3 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 492 501 • Fax 943 492 501

construcciones
ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 • Fax: 943 260 250



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



A M E N A B A R

AENOR

ER

Empresa
Registrada

ER-424/2/96



Ederki Lantegiak S.L.

SALMETA • MEKANIKA • KARROZERIA

Ihurrita Bidea 13 • 1-6 lokalak • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 491 848 / 943 491 641



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 • 20180 OIARTZUN

☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91

Carrefour



OIARTZUN
MERKATARITZA ZENTRUA

UDA ZORIONTSUA
OPA DIZUEGU